

## BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 5573

*EBAZPENA, 2010eko otsailaren 8koa, Ingurumeneko sailburuordearena, txerriak ustiatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua ematen duena, Elburgo/Burgeluko udalerrian (Araba) Etxisua SL enpresak sustatua.*

#### AURREKARIAK

2006ko abenduaren 29an, Juan Carlos Val López jaunak, Etxisua SL enpresaren izenean eta ordezkari, Elburgo/Burgeluko udalari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Elburgo/Burgeluko udalerrian txerriak ustiatzeko jarduerarako. Udal horrek, 2007ko otsailaren 26an dokumentazioa igorri zuen Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailera. Ondorengo dokumentu teknikoak erantsi ziren eskaerari:

- Memoria (2006).
- Laburpen ez-teknikoa (2006).

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Etxisua SL enpresak, besteak beste, txerriak ustiatzeko jarduera irekitzeko baimena zuen, 2000ko abuztuaren 17koa.

Beranduago, Etxisua SL enpresak udalaren txostena igorri zuen. Txosten hori proiektuaren eta Elburgo/Burgeluko hirigintza-plangintzaren arteko bateragarritasunari buruzkoa zen.

2007ko martxoaren 2an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari txostena eskatu zion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidetzea adosteari dagokionez.

2007ko martxoaren 30ean eta urriaren 2an, Ingurumen Organoak agiri osagarriak eskatu zizkion sustatzaileari; espedientea 2007ko azaroaren 6an osatu zen.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2008ko azaroaren 14an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Etxisua SL enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Arabako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2008ko abenduaren 10ean. Era berean, ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2009ko urtarrilaren 20an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Elburgo/Burgeluko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

2009ko urriaren 19an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Etxisua SL enpresaren esku utzi zen, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituz.

2010eko urtarrilaren 29an sustatzailearen jakinarazpena jaso zen. Jakinarazpen horretan hainbat ohar egiten ziren Ingurumeneko Baimen Bateratuaren ebazpen-proposamenari lotuta.

### ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lege horrek atmosferaren, uraren eta lurzorua kutsadura saihestea du helburu, edo hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarri eta ingurumen osoaren babes maila altua lortzeko.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta -lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusi teknikoak dutenak.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluari jarraituz, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikulua arabera, baimen honen oinarritzko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplikatzeko den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten Herri Administrazio guztien artean koordinatuko den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen legerian aurreikusitako ingurumen-baimen guztiak administrazio-egintza bakar batean bildu nahi izan dira. Etxisua SL enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorri.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arrisku-txuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzeko du; ez du ordezkatzeko, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko guztian ere. 29. artikulua horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Etxisua SL enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak; horiez gain, espedientean sartu dira Elburgo/Burgeluko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak.

Instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplikatzeko den arloko legerian ezarritako baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2002ko azaroko Reference Document on Best Available Techniques for Intensive Rearing of Poultry and Pigs BREF agiriaren edukia hartu da kontuan. Horrez gain, araudi sektorialeki dagokienez, kasu honetan aplikagarria da, batez ere,

uztailaren 6ko 141/2004 Dekretua, abeltzaintzako ustiapenen arau teknikoak, arau higieniko-sanitario eta ingurumenekoak ezartzen dituena, abenduaren 22ko 390/1998 Dekretua, nekazaritzatik eratorritako nitratoekin ura kutsatzeko arriskuan dauden Inguruak izendatzeko arauak finkatzen dituena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza-lanetan jardunbide egokietarako kodea onartzen duena, eta 2000ko abenduaren 18ko Agindua, Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen sailburuak, Garraio eta Herrilan sailburuak, eta Nekazaritza eta Arrantza sailburuak emandakoa, nekazaritzatik eratorritako nitratoekin ura kutsatzeko arriskuan dauden inguruneak izendatzeko arauak finkatzen dituena.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Etxisua SL enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da. Ildo horretan, kontuan hartu behar da organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek sustatzaileak izapide honetan egindako oharrak aztertu dituztela, eta guztiak kontuan hartu direla ebazpen hau lantzeko orduan.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2009ko urriaren 19an emandako ebazpen-proposamena; Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra; Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea; Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzko ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; Legea burutzeko araudia onartzen duen irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua; Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretua; Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erki-deari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea eta aplikatu daitezkeen gainerako araudia,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Helbide soziala Elburgo/Burgeluko udalerriko (Araba) Camino Canal kalean –z/g– duen eta IFK B-01047794 zenbakia duen Etxisua SL enpresari Elburgo/Burgeluko udalerrian txerriak ustiatzeko jarduerarako ingurumeneko baimen bateratua ematea, Ebazpen honen bigarren atalean zehaztutako baldintzak jarraituz.

Jarduera hori «9.3.c) 750 txerri eme baino gehiago edukitzeko lekua duten txerrien hazkuntza intentsibora zuzendutako instalazioak» kategorian sartuta dago, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinaren barruan.

Etxisua SL enpresaren instalazioak Elburgo/Burgeluko udalerriko camino Canal kalean –z/g– daude, Argomanizko gunearen hegoaldean.

Txerrien ustiapenera zuzendutako instalazioak animaliak jasotzeko 4 eraikin ditu (bi eraikin eraldirako, eraikin bat erditzeko, eta eraikin bat gizendegirako).

	Azalera	Ukuiluratzeko edukiera		
		Amak	Aketzak	Esne-txerrikumeak
Ernaldi Nabea – 1: Aketz, ernaldi aurre eta ernaldirako eraikina.	876 m <sup>2</sup>	477 plaza		
Ernaldi Nabea – 1. eranskina: Berrezartzeko eta aketzentzako eraikina (aurrekoari atxikiak)	205 m <sup>2</sup> .		15 plaza	
Erditzeko eta Gizentzeko Nabea: Bulego, biltegi, erditze eta gizentzeko eraikina	1.025,50 m <sup>2</sup>	185 plaza		10 ama bakoitzeko
Ernaldi Nabeak – 2 (A er. eta B er.): Ernaldirako bi eraikin berdin	900 m <sup>2</sup>	296 plaza		
Guztira	3.006,5 m <sup>2</sup>	960		

Ustiapenean dauden animalien gutxi gorabeherako kopurua (2007ko datuak) honako hau da: 14 aketz, 180 txerri bularra ematen, 740 txerri atsedendian, ernaldi aurrean edo ernaldian, 1.200 esne-txerrikume bularra hartzen eta 1.500 esne-txerrikume hazten.

Etxisua SL enpresaren jarduera txerri amen ugaltze-zikloak mugatzen du. Prozesua hasten da aketzak eta txerri amak elkartzen dituztenean. Ernaldi-egoera berretsi ondoren, txerri amak 1. eta 2. ernaldi-nabeetara eramaten dituzte. Ernaldiak 115 egun inguru irauten du. Ondoren txerri amak erditze-eraikinera eramaten dituzte. Bertan bost eguneko egokitze-epea gertatzen da. Beranduago, txerri amek hamar esne-txerrikume inguru izaten dituzte. 21 eta 30 egun bitartean bularra eman ondoren, esne-txerrikumeak ametatik banantzen dira txerri-merkatuan saltzeko.

Etxisua SL enpresak berogailuak ditu erditze-gelatan, eta nabe guztiek aireberritze naturala dute.

Animaliak elikatzeko pentsua gordetzeko bost silo dituzte. Urtean 1.000.000 kg inguru kontsumitzen dira. Pentsu hori soltean jasotzen da eta automatikoki gela bakoitzeko dosifikatzailetan banatzen da. Esne-txerrikumeen hasierako pentsua zakutan erosten da, eta esne-txerrikumeak eskuz elikatzen dituzte.

Atmosferara batez ere isurtze barreiatuak egiten dira, txerri-jarduerak berak sortutakoak.

Etxisua SL enpresan uretara ez da isurketarik egiten, nabe guztietan bideratze-sare bat dagoelako. Bertan pixorak, garbiketa-urak eta ur sanitarioak biltzen dira eta pixorren hobira isurtzen dituzte. Pixorren hobi honek 360 m<sup>3</sup>-ko edukiera du, eta gehienez 90 egunez egon daitezke gordeta bertan. Pixor horiek kudeatuko dira, uraska bidez, egunero 18 m<sup>3</sup> atereaz. Etxisua SL enpresaren kalkuluen arabera 3.285 m<sup>3</sup>/urte pixor kalkulatu dute.

Sortutako hondakinei dagokienean, hondakin horiek batez ere mantentze-lanak bezalako eragiketa orokorretatik datoz.

Txitategiko hegazti eta txerrien hazkuntza intentsiboaren Europako BREFean (2002ko azaroko «Reference Document on Best Available Techniques for Intensive Rearing of Poultry and Pig») identifikatutako teknika erabilgarri onenen artean honako hauek nabarmentzen dira: txerrien hazkuntza intentsiboan nekazaritzako jardunbide egokiak, nitrogeno-iraizketari aplikatutako nutrizio-teknikak, fosforo-iraizketari aplikatutako nutrizio-teknikak, erdiberri dauden txerrientzako (esne-txerrikumeak barne) ukuiluratzeko-sistema, lurzoruan pixorak zabaltzeko teknikak, eta ur-konsumoa murrizteko teknikak.

Bigarrena.– Etxisua SL enpresak Elburgo/Burgeluko udalerrian sustatutako txerriak ustiatzeko jarduerarako ondorengo baldintzak eta betekizunak ezartzea:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari eman dizkion datuetan aldaketarik balego, Etxisua SL enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Etxisua SL enpresaren instalazioa ustiatzeko orduan, atmosferara egiten diren isurketak minimizatuko dira eta ebazpen honetan adierazitako guztia beteko da.

B.1.2.– Isurtze barreiatuak identifikatzea.

a) Txerrien ustiapen-instalazioan txerrien ukuiluratze-nabeetatik, pixorren hobiko simaurra biltegitzetik eta silotan pentsuak biltegitzetik datozen isurtze barreiatuak sortzen dira.

b) Etxisua SL enpresan sortutako isurtze barreiatuak honakoak dira, ukuiluratzeko edukieraren arabera kalkulatuta eta abeltzaintza-sektoreko gasen isurtzeak kalkulatzeko taulen kalkulu-faktoreak erabiliz (EPER Espainia IPPC Zuzentaraua eta Eusko Jaurlaritzak landutako atmosferara egindako isurtzeak neurtu, zenbatetsi eta kalkulatzeko Gida Teknikoak):

Eraikinaren identifikazioa	Animalia	Plaza kopurua	Azalera (m <sup>2</sup> )	Masa-isuria (kg/urte)		
				NH <sub>3</sub>	CH <sub>4</sub>	N <sub>2</sub> O
Nabeak: – Aketzentzako, ernaldi aurrerako eta ernaldirako eraikina. – Berrezartzeko eta aketzentzako eraikina – Bulego, biltegi, erditze eta gizentzeko eraikina – Ernaldirako bi eraikin berdin	Aketzak	14	3.006,5	36.739,8	73.167,9	292,7
	Txerriak bularra ematen	180				
	Txerriak atsedeanaldian, ernaldi aurrean edo ernaldian	740				
	Esne-txerrikumeak bularra hartzen	1.200				
	Esne-txerrikumeak hazten	1.500				

B.1.3.– Isuriak murrizteko neurriak eta isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean, teknikoki edo ekonomikoki bideragarria bada, isurketak murrizteko honako neurri hauek ezarriko dira:

– Ekoizpenaren fase bakoitzaren nutrizio-teknikak.

– Nitrogeno-iraizteari aplikatutako nutrizio-teknikak: pentsuetan proteina gordina adierazten duten honako maila hauek lortu beharko dira:

Fasea		Proteina gordina (% pentsuan)	Iruzkina
Txerrikumeak titia kentzea	< 10 kg	19-21	Ondo orekatutako aminoazido-ekarpenarekin eta digerigarritasun egokiarekin
Esne-txerrikumeak	< 25 kg	17,5-19,5	
Txerriak gizentzea	25 – 50 kg	15-17	
	50 – 110 kg	14-15	
Txerri emeak	Ernaldia	13-15	
	Bularra ematea	16-17	

– Nutrizio-teknikak aplikatuko dira fosforo-iraizketan: pentsuen guztizko fosforoari dagokionez, maila adierazgarri hauek lortu behar dira:

Fasea		Fosforo-eduki guztizkoa (% pentsuan)	Iruzkina
Txerrikumeak titia kentzea	< 10 kg	0,75 – 0,85	Fitasa edo digerigarritasun handiko elikadurako fosfato inorganikoak erabiliz
Esne-txerrikumeak	< 25 kg	0,60 – 0,70	
Txerriak gizentzea	25 – 50 kg	0,45 – 0,55	
	50 – 110 kg	0,38 – 0,49	
Txerri emeak	Ernaldia	0,43 – 0,51	
	Bularra ematea	0,57 – 0,65	

– Animaliak ukuiluratzeko sistemekin lotutako teknikak: gaur egungo ukuiluratzeko-sistemarekin jarraitu beharko da eta etorkizunean egin daitezkeen aldaketetan BREFen gomendioak kontuan hartu beharko dira.

B.2.– Isurketak egiteko baldintzak.

B.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Etxisua SL enpresak ez du likido-isurketarik sortzen, efluente likidoak, eta garbiketa arruntetatik eta ur sanitarioetatik datozen prozesuko urak eta hondakin-urak enpresak duen pixorren putzura bideratzen direlako.

Espresuki debekatua dago edozein motatako hondakin-ur ibilgura isurtzea.

B.2.2.– Nekazaritza-jardueratik datozen nitratoek uretan eragindako kutsadura.

Etxisua SL enpresaren instalazioak ez daude nekazaritza eratorritako nitratoekin kutsatzeko arriskuan dauden zona gisa izendatzeko lekuan kokatuak abenduaren 22ko 390/1998 Dekretuaren arabera. Dekretu honek nekazaritza eratorritako nitratoekin kutsatzeko arriskuan dauden inguruak izendatzeko arauak finkatzen ditu.

Abenduaren 22ko 390/1998 Dekretuaren arabera nekazaritza eratorritako nitratoekin kutsatzeko arriskuan dauden inguruak pixorrek ezabatzeko Etxisua SL enpresak erabilitako finketan, nekazaritza-jardueren ondorioz sortutako nitratoek urak kutsa ditzaketen zonen gainean Jardun Plana aplikatuko da. Plan hori 2000ko abenduaren 18ko Agindu bidez onartu zuten Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko, Garraio eta Herrilan Saileko, eta Nekazaritza eta Arrantza Saileko sailburuek.

Etxisua SL enpresak 2000ko abenduaren 18ko Aginduaren I. eranskinean ezarritako baldintzak bete beharko ditu. Agindu horren arabera, nekazaritza-jarduerak eragindako nitratoek ura kutsa dezaketela adierazitako zonetan jarduteko plana onartzen da.

Halaber, eta eranskin horretan ezarritakoaren arabera, Etxisua SL enpresak ustiapen-koaderno bat egunean izan beharko du. Bertan, Arriskuan dagoen Zonan kokatutako lursail bakoitzerako honako hau adierazi beharko dute: lurzorua kalitatea, laborea, ongarritze-dosia, ongarrria botatutako eguna, ongarrri-mota, lortutako ekoizpena eta zein baldintza meteorologikotan aplikatu zen. Halaber, ustiapenean sortutako pixorrak nola kudeatu diren adierazi beharko da; sortutako kantitateak; lurzorian aplikatu direneko data, kantitateak eta baldintzak; ustiapenetik noiz erretiratu zen (ezabatze modu hau aukeratu badute) eta erretiratze hori zein baldintzatan egin zen. Ustiapen-koadernoaren edukiak Aginduko II. eranskinean zehazten dira.

Sortutako pixorrak gordetzeari dagokionean, pixorren hobiaren instalazioa handitzen bada eta hobia gaur egun dagoen lekuan solidoak bereizteko sistema eraikitzen bada, simaurra gordetzeko sistemei buruzko 2002ko abenduko Reference Document on Best Available Techniques for Intensive Rearing of Poultry and Pigs Bref-ean deskribatutako Teknika Erabilgarri Onenak hartu beharko dira kontuan.

B.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira horien izaera zehaztu eta helmuga egokia erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegitzatzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da, eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegean ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorritik gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegean hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako artezpideekin bat etorritik gauzatuko da.

Hondakinak biltegitzatzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen jarioak kanpora irten ez daitezkeen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu eta ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Elburgo/Burgeluko Udalean.

B.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

- 1. prozesua: «Zerbitzu orokorrak – mantentzea».
  - 1. hondakina: «Kutsatutako plastikozko ontziak – produktu desinfektatzaileko bidoiak».
  - Identifikazioa: B83432930/2021398/1/1.
  - Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41//H5//A243//B0019.
  - EHZ: 150110.
  - Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Baimendutako kudeatzaileari entregatu aurretik big-bagetan gordetzen dira.

- 2. hondakina: «Metalezko ontzi hutsak».
- Identifikazioa: B83432930/2021398/1/2.
- Hondakinaren kodea: Q5//R13//S36//C41//H5//A243//B0019.
- EHZ: 150110.
- Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Baimendutako kudeatzaileari entregatu aurretik big-bagetan gordetzen dira.

- 3. hondakina: «Bateriak».
- Identifikazioa: B83432930/2021398/1/3.
- Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C18/23//H8/14//A243//B0019.
- EHZ: 160601.
- Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Pila eta akumuladoreei, eta euren hondakinen ingurumen-kudeaketari buruz otsailaren 1eko 106/2008 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

- 4. hondakina: «Substantzia arriskutsuz kutsatutako babes arropak eta garbitzeko trapuak».
- Identifikazioa: B83432930/2021398/1/4.
- Hondakinaren kodea: Q5//D15//S40//C51//H5//A243//B0019.
- EHZ: 150202.
- Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Alegriako garbigunera eramango dira.



o 5. hondakina: «Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak».

– Identifikazioa: B83432930/2021398/1/5.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C6/11/18//H6/14// A243//B0019.

– EHZ: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: noizean behin.

Otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, gailu elektriko eta elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan, ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

a) Etxisua SL enpresak hondakin bakoitzetik urtean sortutako kantitatea adierazi beharko du.

b) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, jarioen bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

c) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

d) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen arabera izango da.

e) Hondakin arriskutsuak ezingo dira 6 hilabetetik gora biltegitatu.

f) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramanez aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eramanez aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

g) Hondakin arriskutsuak eramanez aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eramanez. Etxisua SL enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

h) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramanez erabiliko den garraibideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

i) Etxisua SL enpresak, ekipo elektriko eta elektronikoen ekoizlea den neurrian eta tresna elektriko eta elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzko otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuaren 2. artikuluko c atalean ezarritakoa oinarrian hartuta, aipatutako xedapeneko 7. artikuluan ezarritakoa bete beharko du.

j) Etxisua SL enpresak PKB daukaten gailuak dituen edo izan ditzakeenez, nahitaez bete behar ditu horiek behar bezala kudeatzeko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretua, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituen, eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

k) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Etxisua SL enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

l) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailearen 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailearen 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldatetan ezarritakoa betez.

m) Amiantoak duten hondakinak antzemanaz gero, Etxisua SL enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoak duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun- eta osasun-arloan bete behar diren gutxienerako baldintzak.

### B.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Papera eta kartoia	200101	Zerbitzu orokorrak	Noizean behin
Hiri-hondakinak	200399	Zerbitzu orokorrak	Noizean behin
Paletak	170201	Zerbitzu orokorrak	Noizean behin

a) Etxisua SL enpresak sortutako hondakin ez-arriskutsuen gutxi gorabeherako ekoizpena adierazi beharko du.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezingo dira urtebetetik gora biltegitatu. Hondakinen azken helburua balioztagune denean, 2 urtez biltegitatu ahal izango dira.

d) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarritzko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio

hierarkikoei egokitzen zaiela. Etxisua SL enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

e) Halaber, hondakinak zabortegian biltegitratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

f) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

#### B.3.3.– Animalia-azpiproduktuak ezabatzea (gorpuak).

Etxisua SL enpresaren instalazioetan urtean 5 tona animalia inguru hiltzen dira, eta hondakin horiek gorpuak erretiratzeko baimendutako zerbitzu batek erretiraten ditu eta arrisku-material espezifikoko (AME) tratamenduko instalazio batera bidaltzen dira.

Edozein modutan, ustiapenetik animalia hilak eraman edo desagerrarazteko, giza kontsumora bideratu ez diren animalien azpiproduktuei aplika dakizkiekeen arau sanitarioak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko urriaren 3ko 1774/2002 Araudian (EB) xedatutakoari jarraituko zaio.

#### B.4.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzan barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta atearak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzan barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 23:00ak eta 07:00ak bitartean, leiho eta atearak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

#### B.5.– Paisaiari buruzko baldintzak.

Etxisua SL enpresak instalazioaren inguruko zuhaitz-hesia ez du kenduko.

#### B.6.– Animalien osasuna eta ongizatearekin lotutako baldintzak.

Etxisua SL enpresak bete beharko du abeltzaintzako ustiapenen arau teknikoak, arau higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituen uztailaren 6ko 141/2004 Dekretuaren I. eranskineko 3. kapituluko 6. puntuan xedatutakoa.

Etxisua SL enpresak txerriak babesteko gutxienezko arauari buruzko urriaren 31ko 1135/2002 Errege Dekretuan xedatutakoa bete beharko du.

#### B.7.– Programa Sanitarioarekin lotutako baldintzak.

Instalazio, tresna eta ekipo guztiak aldizka garbituko dira. Beharrezkoa denean, instalazioan desinfektazio-lanak, arratoi-garbiketa eta intsektuak hiltzeko lanak egingo dira.

Txerrien gaixotasun nagusien aurkako osasun-programa abian jarri beharko du ustiategiak, al baitariaren kontrolpean, eta indarren dauden osasun-araudiak bete beharko dituzte.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

C.1.– Immisio atmosferikoak kontrolatzea.

Urtero jarduerak atmosferara egindako isurtze barreiatuen gutxi gorabeherakoa igorri beharko dute.

C.2.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Ekitaldian jasota dauden animalien kopurua	Guztizko kop. Aketz-kop. Bularra ematen duten txerriak Atsedendian, ernaldi aurrean edo ernaldian dauden txerriak. Bularra hartzen ari diren esne-txerrikumeak Hazten ari diren esne-txerrikumeak
Pentsuaren kontsumoa	Guztizko kontsumoa (kg pentsu/urte)
	Elikadura-maila (kg/txerri/urte) • Txerriak bularra ematen • Txerriak atsedendian, ernaldi aurrean edo ernaldian • Aketzak • Esne-txerrikumeak
Pabiloietako ur-kontsumoa	Guztizko kontsumoa m <sup>3</sup> /urte
	Ur/pentsu erlazioaren batez bestekoa (l/kg)
	Ur-kontsumoa (l/egun/buru)
	Urteko ur-kontsumoa (l/buru/urte)
Garbiketa-uraren kontsumoa	Kontsumoa m <sup>3</sup> /m <sup>2</sup> garbiketarako
Energia-kontsumoa guztira	kWh energia elektrikoaren guztizkoa ekitaldian
	kWh/m <sup>2</sup> guztizko azalera/urte
	tn erregai / urte
Titia kendu / hazi diren txerrien energia-kontsumoa	kWh/txerria urteko
Simaur-ekoizpena	Tn guztira/urte
	kg/buru/urte
Isurketen gutxi gorabeherakoa	kg NH <sub>3</sub> /urte
	kg N <sub>2</sub> O /urte
	kg CH <sub>4</sub> /urte
Animalia hilak	Guztizko kop. ekitaldian
HEAen kantitatea	kg guztizkoak / urte
HAen kantitatea	kg guztizkoak / urte

C.3.– Zarataren kontrola.

Sustatzaileak multzo elektrogenoaren isilgailuak piztuta izango ditu multzo horrek eragindako zarata zuzentzeko neurri gisa.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez.

Sustatzaileak neurketa-proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamena ebazpen honen C.5 atalak aipatzen duen ingurumena zaintzeko programaren agiri bateginari gehituko zaio.

#### C.4.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30a baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistematik. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

#### C.5.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, ebazpen honetan ezarritako eta proposatutako betekizunak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

#### D) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako mantentze-lanei dagokienez (saneamendu-hustualdia adibidez), botako diren kutsagarrien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

#### D.2.– Jarduera uztea.

Txerriak ustiatzeko instalazioaren ustiapena etetean, kutsadura eragiteko arrisku oro saihesteko neurriak eta kasuan kasu ezar daitekeen araudiaren arabera kokalekua baldintza egokietan uzteko neurriak ezarriko dira.

#### D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Etxisua SL enpresak aurkeztutako Memorian jasotzen den proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabi-deei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta

zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegitratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetze-rako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzorua gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Lehen adierazitako prebentzioko mantentze-eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzoru kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

d) Pixorrak eta desinfektatzaileak, besteak beste, maneiatzeak lurzoru eta ura kutsa ditzake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen azalera guztiak irazgaiztuko dira.

e) Instalazioetan erabilitako lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabana-tzeko moduan biltegitratuko dira.

f) Hautsezko produktuak biltegitratzeko silo estaliak izango dira.

g) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeke erreserbako edukiontzia, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontzia, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

h) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamendu-instalaziora eramango.

i) Hobi septikoaren sistemak eta iragazki biologikoak garbitze- eta mantentze-lan egokia izango dute errendimendu ona ziurtatzeko. Aldizka enpresa espezializatu batek erretiratuko ditu pilatutako solido eta lohiak, eta iragazki biologikoaren ohantzea garbituko du, garbiketan arrastatutako solidoak ibilgura hustea saihestuz.

j) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

k) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, pixorren hobiak gainezka egitea), sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko dio berehala Ingurumen Sailburuordetzari.

l) Gorabehera edo arazo larriren bat edo ustekabeko isurketaren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalarari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, eta bertan, datu hauek agertuko dira gutxienez:

– Gertakari mota.

– Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

- Iraupena.
- Ustekabeko isurketa bada, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko aurreikusitako epeak.

m) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiria. Hori egin ezean, egindako eskaeraren kopia aurkeztu beharko da eskumena duen erakundearen aurrean.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomentatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Etxisua SL enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatuko kutsagarriei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, botatuko eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duenari, jarraituz.

Informazio hori osatzen duten datuak ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira, Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez ([www.eper-euskadi.net](http://www.eper-euskadi.net) web-orrian eskuragarri): Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistroa (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorritz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaie-tan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnek, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketan arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Etxisua SL enpresak ingurumen-organoaren aurrean egiaztatu beharko du Ebazpen honetako bigarren ataleko ondorengo puntuetan ezarritako baldintzak betetzen dituela, Ebazpen hau jakinarazten denetik gehienez 6 hilabeteko epean: B.1.3 (Isurketak murrizteko neurriak betetzen dituenaren frogagiria); B.2.2 (Ustiapen-koaderno, 2000ko abenduaren 18ko Aginduaren II. Eranskinean zehaztutakoaren arabera); B.3.1.a) (Hondakin arriskutsu bakoitzetik sortutako urteko kantitatea); B.3.2.a) (Hondakin ez-arriskutsu bakoitzetik sortutako urteko kantitatea); C.5 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.3.g) (Larrialdi-kasuetarako eskura dauden materialen zerrenda); D.3.m) (Suteen aurkako araudia egiaztatzea).

Era berean, baldintza horiek bete ote diren egiaztatzeko, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek egin beharreko ikuskapen-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta ekipatu direla.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urtez egongo da indarrean. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Etxisua SL enpresak Ebazpen honen xede den txerri-ustiapeneko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori Ingurumen Sailburuordetzan jakinarazi beharko du, hark onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

– Epearen barruan ebazpen honetako hirugarren atalean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzen ez badu, baldin eta interesdunak ez duen behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen.

– Etxisua SL enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Etxisua SL enpresari, Elburgo / Burgeluko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.



Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsioa aurkez daiteke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua-  
ren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita,  
hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen  
azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluaekin eta ondorengoekin bat etorritik (urtarrilaren  
13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2010eko otsailaren 8a.

Ingurumeneko sailburuordea,  
NIEVES TERÁN VERGARA.